

Espedientearen kodea: 2025KH010001
Espedientearen gaia: 2024ko Aurrekontuaren Likidazioa
Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

Udal honen 2024ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehen. Udal honen 2024ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINITZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2024-12-31n:	3.106.457,55
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2024-12-31n:	6.254.510,08
Aurrekontuko zordunak :	3.734.380,99
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	2.520.129,09
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2024-12-31n:	3.589.465,08
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	2.092.515,66
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.496.949,42
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):	5.771.502,55
5.- Saldo kobragaitzak:	1.933.417,99
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	33.910,15
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	3.804.174,41

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-886.837,71
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-346.965,75
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	3.485.362,13
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-33.334,55
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	2.218.224,11

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	2.643.207,79
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	2.874.198,60
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	5.517.406,39

Bigarrenena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025KH010001-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)